

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Irurtzunen hasi dituzte Atakondoa ikastetxea handitzeko lanak

*Ikastetxe publikoak 6 gela gehiago izango ditu hurrengo ikasturtean*

Ostirala, 2018.eko uztaillak 13

Hezkuntza departamentuak hasi berri ditu Irurtzungo Atakondoa ikastetxe publikoaren handitze lanak. Construcciones Martínez Sánchez Cintruénigo enpresa ari da lanak egiten eta aurrekontua 914.203 eurokoa da.

Handitze lanei esker, Lehen hezkuntzako 6 gela gehiago izango ditu ikastetxe publikoak, ikasle eta irakasleentzako komun berriak (jolastokian ere komun bat egingo da), biltegia, 3 bilera gela, larrialdietarako eskailera eta ekintza klasifikaturako egokitzapena. Enpresa esleipedunak 150 egun ditu lanak amaitzeko. Beraz, ondo bidean, 2018ko azaroaren 30erako amaituta egongo dira Atakondoko handitze lanak. Juan Antonio Ascunce Izuriagak eta Patricia Ilarraz Itozek osatutako taldeak idatzi du handitze proiektua.

Irurtzungo ikastetxe publikoak, gaur egun, haur eta lehen hezkuntzaz gainera, DBHko 1. eta 2. mailak ere baditu eta azkeneko ikasturtean zehar toki faltan izan dira matrikulatutako ikasle guztiak egokieran artatzeko. Beraz, Atakondoa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eraikin berri bat izango du, egungo lursailaren iparralderantz, eta egungo eraikinarekin lotuko da lehenengo solairuaren paretik. Hala, 491,45 metro koadro irabaziko ditu ikastetxeak. Hezkuntza departamentuak 914.203 euroko inbertsioa egingo du horretarako.